

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

Mintza kafea

URTARRILEKO AHOGOZAGARRIA: TXOKOLATE BIZKOTXOA

Osagaiak:

- 70 gr gurin
- 120 gr azukrea
- 3 arrautza
- 185 gr gozogintzarako irin
- 1 zorroko legamia
- 185 gr txokolate beltz
- 200 ml esne-gain likidoa
- Gatz pittin bat
- Moldea



Prestaketa:

1. Maria bainuan txokolatea desegin, gorde.
2. Katilu batean arrautzak, azukrea eta gatz irabiatu.
3. Gurina desegina gehitu eta ongi nahasi. Esne-gaina gehitu eta nahasi. Irina eta legamia gehitu, irabiatu eta ongi nahasi. Txokolatea gehitu eta nahasi. Labea berotu 170°-tan. Moldea gurinarekin igurtzi.
4. Multzoa moldera pasa eta labekatu 170°-tan, 30-40 minutuz. Hoztu arte itxaron. Moldetik atera eta zerbitzatu.

HIZKI-ZOPA

LANBIDEAK

B	B	D	F	Q	Q	A	P	H	W	R	D	E	C
N	A	D	G	L	X	U	C	X	Q	F	Y	R	H
M	S	H	J	T	J	R	Q	C	D	Y	F	I	K
E	E	Q	V	V	P	S	U	J	F	S	U	Z	Y
D	R	L	Q	C	D	U	D	U	Z	B	U	A	V
I	R	C	K	A	Z	E	T	A	R	I	A	I	F
K	I	H	J	I	L	V	R	U	P	M	M	N	A
U	T	P	L	O	R	E	Z	A	I	N	A	A	F
A	A	I	D	D	B	I	T	U	R	G	I	N	A
S	R	K	S	H	F	Q	U	O	W	B	S	W	O
Y	R	B	I	T	A	R	T	E	K	A	R	I	A
N	R	M	E	K	A	N	I	K	A	R	I	A	G
H	A	X	O	K	I	N	A	V	H	I	W	Y	X
K	Z	J	Y	P	V	S	S	I	R	W	N	B	X



ZUTABEA *Nerea Elguezabal Alesanco*

Lan-harremanez hitz egiten dugunean, langileen eta enpresaren arteko loturaz ari gara, baina beste lan-harreman batzuk ere badaude, langileen euren artean ezartzen direnak. Langileen arteko harreman ona ezinbestekoa da lan-eremuan ongizatea sortzeko, eta talde-espiritua hobetzen duen kidesun-sentimendua sortzen du.



Horregatik, soldata, prestakuntza, kontziliazioa edo beste faktore batzuk alde batera utzita, langileek lan-ongizatean gehien baloratzen duten faktorea lankideen arteko harreman ona da. Baina, lankidea ez da bakarrik bere lana gune fisiko berean eta lan-ordutegi berarekin egiten duen norbait, haratago doan zerbait da: konfiantzazko lotura bat ezartzen duen norbait da, eta horrek segurtasuna ematen dizu zure lan-ingurunean. Lankidetasunik ezak eragin kaltegarria du laneko errendimenduan.

Zein den enpresa baten aktiborik handiena? Dударik gabe, bertako langileak. Orduan, kontuan izan behar dute langileen arteko norgehiagoka eta lehia sustatzea etekin handiagoak lortzeko, "gaurko ogia eta biharko gosea" izan daitekeela.